

Euskara administrazioan nola ahuldu are gehiago



MALORES
ETXEBERRIA ARRESE

2018ko azaroaren 13an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Andoaingo Udalak onartu berri zuen lanpostuen zerrenda. Lanpostuak egonkortu eta behar berrietara egokitzeko prozesu baten emaitza zen, eta, hartaz baliatuz, hizkuntza eskakizunetan aldaketa garrantzitsuak onartuak zituen. Aurreko lanpostu zerrendarekin alderatuta, 36 lanpostutan egin zuten behera hizkuntzazko exigentziek. Horietatik 15 lanpostutan 4. hizkuntza eskakizuna 3.a bihurtu zen, eta beste 21 lanpostutan, berriz, 3. hizkuntza eskakizuna 2.a.

Hizkuntzarekin estuki lotutako lanpostuetatik kanpo, goi eta erdi mailetako lanpostu bakarrari mantendu zioten 4. hizkuntza eskakizuna, idazkariaren lanpostuari, -epaitegien aurrean udala ordezkatu beharrik goragoko maila eskatzen omen zuelako-.

Aldaketak arrazoitzeko txosten tekniko mamitsuan erabili zen argudio berri eta nagusienetako bat zera izan zen, administrazioan eskatzen den hizkuntza mailak estuki lotua egon behar duela lanpostu horretan jarduteko eskatzen den titulazio akademikoarekin. Hau da, administrari izateko langile bati eskatzen zaion formazio akademikoa Batxilergoa edo Lanbide Heziketako ikasketak eginak izatea bada, eta formazio akademiko horren erdia edo gehiago euskaraz egiteagatik B2 mailako (administrazioko 2. hizkuntza eskakizunaren pareko) gaitasuna

aitortzen bazaio (eta hala aitortzen dio 47/2012 Dekretuak), ez omen da logikoa maila hori baino goragokoa edo beheragokoa eskatzea administrazioan.

Logika bera erabiltzen da goi eta erdi mailetako lanpostu teknikoetako hizkuntza eskakizunak izendatzeko ere. Hau da, Zuzenbide ikasketak edota Ekonomiakoak edota Arkitektura edo Ingeniaritzakoak zati batean behintzat euskaraz egin baditu pertsona batek, eta ikasketa horiek amaitutakoan C1 agiria (EGAre eta administrazioko 3. hizkuntza eskakizunaren parekoa) aitortu bazaio, nolatan eskatu hortik gorakoa administrazioan lan egiteko?

Begiratu batera logikoa ematen du arrazoiketak, hala izan liteke Burgosen edota Bordelen gaztelania edota frantsesarekin, hurrenez hurren. Kontua da, hizkuntza bat gutxiagotuta dagoen eremu soziolinguistiko batean, gurean kasu, eskolak tamainako lorpenak dituela hizkuntza ezagutzaren arloan, eta tamaina kaskarragokoak oraindik, eskola hori ez denean murgiltze sistema gisa planteatu. Azken urteotako ikerketa eta azterketa askok frogatu dute emaitzak ez direla egokienak -Mikel Basabe irakasleak datu zehatzak ematen zituen urriaren 16ko ARGIAren zenbakian argitaratutako iritzi artikuluan-. Hezkuntza sistemaren hutsuneei adarretatik heldu eta emaitzak hobetzeko neurriak eta baliabideak jarri beharrean, ordea, haiek normalizat hartu eta administrazioaren euskalduntzeak

daraman abiadura motela motelagotzeko modua da hori.

2018ko urratsaren ondotik, 2022an errebaja hotsak badatoz berriro ere, eta, hizkuntza politika bidezkoago baten ize-nean, gehixeago erraztu nahi zaio administraziorako sarbidea langile publikoari. "Euskara Denontzat, por un euskera sin barreras" plataformak kaleratu duen programak, hamabi neurriko proposamen tekniko hornituak, administrazioko profilak eta horiek egiaztatzeko moduak birformulatu beharra jasotzen du, besteak beste. Egiaztapenetan zer hobetua dagoela ez dut dudarik egiten, baina horrek ez du esan nahi gaitasun mailak jaitsi eta bere lana euskaraz egiteko gauza ez denari sarbidea eman behar zaionik.

Ez da ahaztu behar duela hogeita hamar urte jarritako helburua ez dela soilik herritarra euskaraz atentitu ahal izatea -oraindik ere lortu ez dena-, baizik eta baita lana euskaraz egitea ere, zeina administrazio gutxi batzuek baino ez duten lortu. Baina, emaitzak kaskarrak badira, ez da plataforma berri horretako kideek diotenagatik, alegia, okerreko ikuspegiarekin eta exigentzia handiegiarekin planteatu direlako gauzak, baizik eta juxtu alderantziz, legez bezala erabakiz eta planifikazioz ahul eta nagi eman ditugulako hogeita hamar urte. Aurrera egitekotan, zorrotzago jokatu behar da, eta ez soilik langile publiko izan nahi duenarekiko, baita oraingoz inolako betebeharrak linguistikorik ez duen arduradun politikoarekiko ere. Ereduak badaude. ●

BABESLEA:



HIZKUNTZA
berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako souzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"
Antoine de Saint-Exupéry

